

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

6200

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 4koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Metro Bilbao SA enpresak ematen duen zerbitzuaren 2019. urterako tarifak onartzen dituen.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2018ko abenduaren 4an egindako bileran, erabaki bat hartu zuen, eta, jende guztia jakinaren gainean egoteko, segidan transkribatzen da haren xedapen-zatia.

ERABAKIA

Metro Bilbao SA enpresak eskaera bat aurkeztu du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan, 2019. urteko tarifak berrikusteko.

Metro Bilbao SA enpresak ematen duen zerbitzuari dagozkion tarifek prezioak kontrolatzeko arautegia bete behar dute, «autonomia-erkidegoen eremuan baimendutako prezioen» modalitatean, hala ezarrita baitago ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretuaren 16.4 artikuluan (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Eskumen hori betetzea Euskadiko Prezioen Batzordearen eginkizuna da, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin bat etorriz (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk) eta Baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduari jarraituz (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

2010eko ekainaren 15eko Aginduak 9.1 artikuluan ezartzen duenez, baimendutako tarifen indaraldia urtebetekoa izango da, gutxienez; hala ere, 2. paragrafoan, honako hau adierazten du: «nolanahi ere, espedientean behar bezala egiaztatutako egoera berezietan, Euskadiko Prezioen Batzordeak aukera izango du tarifak berrikusteko, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, nahiz eta 1. paragrafoan ezarritako epea igaro ez.»

Aipatutako arauen helburua da nolabaiteko ekonomia-oreka bat lortzea, premiazkoa baita prezioak ezartzeko mekanismoak kontrolatzea, bizitzaren kostua aintzat hartuta.

2019. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedienteaz aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta zerbitzua emateagatikosten egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.– Metro Bilbao SA enpresak ematen duen zerbitzuaren 2019. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen tarifen kontzeptuak eta zenbatekoak:

Urtekoa 26 gune 1	231,00
Urtekoa 26 2 gune	267,50
Urtekoa 26 3 gune	308,50

Bigarrena.– Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 4a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JORDI CAMPÁS VELASCO.